

BIZTANLERIAREN INKESTA, JARDUERAREN ARABERA (BJA) 2008ko lehen hiruhilekoa

Euskal AEko biztanleria landuna %0,3 gutxitu da eta langabezia-tasa bi hamarren igo 2008ko lehenengo hiruhilekoan

Azken urtean 9.300 lanpostu garbi sortu dira eta langabezia-tasa hamarren bat jaitsi da

Euskal AEko lan-merkatuaren 2008ko lehenengo hiruhilekoko datuen arabera, 971.500 okupatu izan ziren hiruhileko horretan, beraz, hiru hilabete lehenago baino 2.900 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Bestalde, langabezia-tasa aurreko hiruhilekoan izandako %3,1etik %3,3ra igo zen, hots, 2.200 gehiago izan ziren langabeak.

Landunen eta langabeen bilakaeren ondorioz, jarduera-tasak lehengoan dirau eta %55,1ean segitzen du 2008ko lehenengo hiruhilekoan.

Generoaren arabera, gizonei eragin die batik bat okupazio-jaisteak, eta okupatuak aurreko hilean baino 2.800 gutxiago dira; emakumeen kasuan 200 gutxiago. Okupazio jaitsierarik handiena Gipuzkoan da, 2.000 enplegu garbi gutxiago; Araba dator ondoren, -600, eta Bizkaia, -300.

Azken hiru hiletan enplegu-galera izan da zerbitzuen sektorean

Zerbitzuen sektoreko okupatuaren kopuruaren jaitsiera nabarmendu behar da, 10.600 enplegatu gutxiago baitira. Industriak, berriz, 6.900 enplegu gehitu ditu, eraikuntzak 400 eta nekazaritzak 300.


Okupazio-tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren gainean landunek duten ehunekoa, %67,8koa izan da, hots, hiru hilabete lehenago baino 0,2 ehuneko-puntu gutxiago. Tasa hori gizonezkoentzat %76,8koa da eta emakumezkoentzat, berriz, %58,6koa.

Lurraldeka, okupazio-tasa altuena Gipuzkoak du, %70,3, aurreko hiruhilekoaren aldean lau hamarren gutxiago; ondoren Arabak, %68,5, zortzi hamarren gutxiago. Bizkaiak du tasarik txikiena, %66,1, aurreko hiruhilekoan baino puntu hamarren bat gehiago.

Kontratu mugagabea duten soldatakoen kopurua 3.200etan handitu da, eta aldi baterakoa dutenena 3.600etan.

2008ko lehenengo hiruhilekoan soldatakoak 807.900 dira guztira. Kontratu mugagabea duten soldatakoen kopurua 3.200etan igo da, 619.100 delarik; aldi baterakoa dutenak (kontraturik ez dutenak barne) 3.600 gehiago dira, 188.800 guztira.

Biztanleria landunaren joera, 1985etik. Euskal AE. (Milakotan)



Iturria: Eustat

2008ko lehenengo hiruhilekoan Euskal AEn ia 800.000 familia-etxe zirela zenbatetsi da eta horietatik ia herenak ez zuela pertsona aktibo bakar bat ere. 10etik ia 7an pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 3.300 familia gutxiago; pertsona aktibo guztiak langabezian dituztenak 11.800 dira (guztirakoaren %1,5), aurreko hiruhilekoan baino 2.700 gehiago.

Euskal AEn langabezia tasa %3,3 da

Langabeak, hots, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak urteko lehenengo hiruhilekoan 33.600 direla zenbatetsi da. Emakumezko langabeen kolektiboak 17.200 lagun hartzen ditu, 1.800 gehiago. Gizonen artean, 400 gehiago daude lehenengo hiruhilekoan eta orain 16.400 dira.

Euskal AEko lan-merkatuko 2008ko lehenengo hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa bi hamarretan igo da, aurreko hiruhilekoaren aldean; %3,3 delarik. Emakumeen langabeziari dagokionez, %4ra igo da (ehuneko 0,4 puntu gehiago), eta gizonezkoena hamarren bat gehitu da, %2,9 delarik. Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, %8,8, 1,7 puntuz igo delarik; horrenbestez, 16-24 urte bitarteko 5.600 gazte aktibo daude langabezian.

Lurraldeka, Araban, 3.100 langaberekin, kopurua 100etan hazi da eta langabezia-tasa %2,1 izan da. Gipuzkoan orain hiru hilabete baino 3.300 lagun gehiago daude langabezian, 11.400 guztira, eta tasa %3,4. Bizkaiak du langabezia-tasarik handiena, %3,6; langabe kopuruan 1.200 pertsona gutxiago ditugu, 19.100 guztira.

Euskal AEko langabezia-tasa, 2008ko lehenengo hiruhilekoan, Euro-eremuko herrietakoa baino ehuneko 3,8 puntu txikiagoa da. EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2008ko otsailean, eremu hartan, langabezia-tasa %7,1 izan zen. Europar Batasuneko tasa, 2008an berau osatzen duten 27 herrialdeak kontuan hartuta, %6,7koa da.

Azken urtean %1 hazi da biztanleria landuna

Biztanleria landunak gora egin du azken hamabi hilabeteetan. 9.300 pertsona gehiago, %1. Igotze hau hiru herrialdeetatik bitan izan da; 8.300 lanpostu garbi sortu dira Bizkaian eta 1.900 Araban. Gipuzkoak 1.000 galdu ditu. Sektoreka, denetan hazkundera: azken urtean zerbitzuen sektoreak sortu ditu lanposturik gehien, 3.100; ondoren industria dator, 3.000 enplegu garbirekin; eraikuntza, 2.900, eta lehen sektorea, 200.

Azken hamabi hiletan okupazio-tasan ehuneko 1,5 puntuko igoera izan zen emakumezkoentzat; eta , aldiz, gizonezkoentzat, lau hamarrenekoa. Bizkaian igo egin da okupazio-tasa urte arteko erkaketan, ehuneko 1,6 puntu. Araban lau hamarren eta Gipuzkoan aldaketarik ez.

Azken urtean behin-behineko soldatakoen kopurua 17.200etan gutxitu da, eta kontratu mugagabea dutenena 30.300etan handitu. Beraz, nabarmentzekoa da kontratu mugagabea duten soldatakoen kopuruaren pitinkako hazkundera; izan ere, 2008ko lehenengo hiruhilekoan guztirakoaren %76,6 dira; orain urtebete %74,1 ziren.

Euskal AEn langabezia-tasa puntu hamarren bat jaitsi zen azken urtean

Langabezia-tasa %0,1 jaitsi zen azken urtean (%3,4tik %3,3ra). Beraz, 500 pertsonak utzi zioten langabe izateari Euskal AEn urtean zehar. Hiru lurraldeetatik bitan jaitsi da langabezia-tasa azken hamabi hiletan. Jaitsierarik aipagarriena Araban izan da (%0,6 gutxiago); Bizkaian ondoren (%0,5 gutxiago). Gipuzkoan %0,7 hazi da.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2008ko 1. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	p.p.*	Milakoak	p.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.823,8		-1,6		-2,4	
AKTIBOAK / IHARDUERA TASA	1005,1	55,1	-0,7	+0,0	+8,8	+0,6
Gizonezkoak	573,2	64,6	-2,4	-0,3	-1,6	-0,2
Emakumezkoak	431,9	46,1	+1,7	+0,3	+10,4	+1,2
BIZTANLERIA LANDUNA / ENPLEGU-TASA	971,5	67,8	-2,9	-0,2	+9,3	+0,9
Gizonezkoak	556,8	76,8	-2,8	-0,4	+0,7	+0,4
Emakumezkoak	414,7	58,6	-0,2	+0,0	+8,6	+1,5
Araba	144,4	68,5	-0,6	-0,8	+1,9	+0,4
Bizkaia	505,4	66,1	-0,3	+0,1	+8,3	+1,6
Gipuzkoa	321,7	70,3	-2,0	-0,4	-1,0	+0,0
Nekazaritza	12,4		+0,3		+0,2	
Industria	250,7		+6,9		+3,0	
Eraikuntza	86,2		+0,4		+2,9	
Zerbitzuak	622,1		-10,6		+3,1	
Soldatakoak	807,9		+6,8		+13,1	
- Kontratu mugagabea dutenak	619,1		+3,2		+30,3	
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	188,8		+3,6		-17,2	
Ez soldatakoak	163,6		-9,7		-3,9	
LANGABEAK / LANGABEZI-TASAK	33,6	3,3	+2,2	+0,2	-0,5	-0,1
Gizonezkoak	16,4	2,9	+0,4	+0,1	-2,3	-0,4
Emakumezkoak	17,2	4,0	+1,8	+0,4	+1,8	+0,3
16 - 24	5,6	8,8	+1,3	+1,7	+0,1	-0,4
25 - 44	21,2	3,7	-0,5	-0,0	+0,1	+0,1
45 eta gehiago	6,8	1,9	+1,4	+0,4	-0,6	-0,3
Araba	3,1	2,1	+0,1	+0,1	-0,8	-0,6
Bizkaia	19,1	3,6	-1,2	-0,2	-2,2	-0,5
Gipuzkoa	11,4	3,4	+3,3	+1,0	+2,5	+0,7
Lehen enplegu bila	3,6	10,7	+1,2		+1,4	
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	818,7	44,9	-0,9	-0,0	-11,2	-0,6
ETXEBIZITZAK	799,9		+0,6		+12,3	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	555,2	69,4	-2,2		+6,8	
- Guztiak okupatuak	525,9	65,7	-3,3		+8,2	
- Guztiak langabeak	11,8	1,5	+2,7		+3,2	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	244,7	30,6	+2,8		+5,4	

*p.p. = Aldea, ehunekotan. Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: M^aJosé Santamaría Gallardo

Tlf:+34-945-01 75 33 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp